

Aurkezteko epealdiak

2 3

Urteroko aitordenak eta aldizkakotasunik gabeko aitordenak aurkezteko epeak

Errolda aitordenak

009 erredua jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek (enpresa jarduerarik ez lanbide jarduerarik egiten ez dutenek) **erabili behar dute** hauek egiteko:

- Zergadunen erroldan alta emateko eskatu; ez NAN ez AIZ ez dutenek IFZ eskatu, zergetan eragina duten eragiketak eginez gero (ez-egoiliarrek 006 erredua erabili behar dute).
- Identifikazio datuen, zerga egoitzaren, egoera zibilaren edo familia unitatearen osakeran eragina duten familia datuen aldaketa jakinarazi.
- Heriotzaren ondoriozko bajaren berri eman.

Adi: etxebizitzaz edo egoera zibilez aldatu bazara, jakinarazi lehenbailehen. Ez itxaron errenta kanpainara arte.

Nola aurkeztu 009 erredua:

1. Egoitza elektronikoa bete (Errolda erreduaren izapidea) eta erredua Internetez bidali.
2. Erredua laguntza programa erabiliz bete (www.araba.eus webgunean eskura daiteke), fitxategia inprimatu eta posta elektronikoz (censohacienda@araba.eus), posta arruntez edo eskuan aurkeztu (helbidea eta ordutegiak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).
3. Interneten (betetzeko PDF) edo Ogasuneko bulegoetan eskura daitekeen paperezko inprimakia bete eta posta elektronikoz (censohacienda@araba.eus), posta arruntez edo eskuan aurkeztu (helbidea eta ordutegiak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).
Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek 037 erredua erabili behar dute komunikazio horietarako.

036 erredua pertsona juridikoek erabili behar dute erroldako alta edo bajaren edo aldaketa baten berri emateko.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren pertsona juridikoek eta entitateek 036 erredua nahitaez aurkeztu behar dute Internetez, egoitza elektronikoa bidez, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkezten dutenean izan ezik.

Nola aurkeztu 036 erredua:

Egoitza elektronikoa linean bete eta erredua Interneten bidez bidali.

- Salbuespena: IFZ eskatzen duten pertsona juridikoek 036 erredua **www.araba.eus** webgunean eskura daitekeen laguntza programa erabiliz beteko dute eta PDF agiria inprimatuko dute Ogasunari aurkezteko. IFZ eskuratzeko, aurretiko hitzordua eskatu behar da telefonoz **945 18 15 10** edo Interneten bidez **<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>**

Notarioak gaiturik daude merkataritza sozietateen behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Internet bidez eskatu eta lortzeko.

037 erredua pertsona fisikoek, jarduera ekonomikoa gauzatzen badute, eta sozietate zibilek, **ondasun erkidegoek, jaraunspen banatugabeek eta gainerako entitateek erabili behar dute** erroldako alta edo baja edo aldaketaren bat jakinarazteko.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek (salbu eta JEZeant alta eman gabeko lokalen errentatzaileek) 037 erredua Interneten bidez aurkeztu beharko dute, nahitaez, egoitza elektronikoa bidez, salbu eta identifikazio fiskaleko zenbakia ematea eskatzen badute edo eredu hori aurrez aurre eta Arabako Foru Ogasunaren laguntzarekin betetzen bada.

Aurkezteko epealdiak

2 3

Nola aurkeztu behar duten 037 eredia Interneten bidez aurkeztera behartuta daudenek:

Eredua egoitza elektronikoan linean bete eta telematikoki bidali.

- Salbuespenak:
 1. IFZ eskatzeko 037 eredia **www.araba.eus** webgunean eskura daitekeen laguntza programa erabiliz bete eta PDF agiria inprimatu Ogasunari aurkezteko. IFZ eskuratzeko, aldez aurreko hitzordua eskatu behar da telefonoz **945 18 15 10** edo Interneten bidez (**https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**).
 2. Ogasunaren bulego batera joanda eta hangoek lagunduta bete eredia. Aldez aurreko hitzordua eskatu behar da telefonoz **945 18 15 10** edo Interneten bidez (**https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**).

Nola aurkeztu behar duten 037 eredia Internetez aurkeztera behartuta EZ daudenek (JEZean alta emanda ez dauden negozio lokalen errentatzaileak edo jarduera ekonomikorik egiten ez dutenak):

1. Eredua egoitza elektronikoan linean bete eta telematikoki bidali.
2. Eredua laguntza programa erabiliz bete (**www.araba.eus** webgunean eskura daiteke), PDF fitxategia inprimatu eta postaz edo eskuan aurkeztu Ogasunari, aldez aurretik hitzordua eskatuta (helbideak eta ordutegiak kontsultatu nahi izanez gero, Gai Orokorrak atalean daude).
3. Ogasunaren bulego batera joanda eta hangoek lagunduta bete eredia. Aldez aurreko hitzordua eskatu behar da telefonoz (**945 18 15 10**) edo Interneten bidez (**https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**).

036 eta 037 ereduak aurkezteko epeak:

- **IFZ eskatzea:** pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek, Arabako lurralde historikoan eratu edo ezarri eta hurrengo hilabetean, eta nahitaez enpresa edo lanbide jarduerari ekin baino lehen.
- **Alta aitorpena, IFZ edukita:** jarduerari ekin baino lehen, eragiketak egin baino lehen edo atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharra sortu baino lehen.
- **Aldaketa aitorpena:** oro har, hilabete izango da aurkeztu beharra sortzen duena gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, salbu eta zergadunen errolda bakarra eta errolda betebeharrak arautzen dituen urtarilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak (ALHAO, 17. zk., 2011ko otsailaren 9a) 13.4. artikuluan aipatutakoak aurkezteko.
- **Baja aitorpena:** hilabete, jarduera eteten denetik, bidezko erregistro ofizialeko idazpena deuseztatzen denetik edo zergapekoa hiltzen denetik.

BEZaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskatu:

Eskaera, nahitaez, Interneteko egoitza elektronikoaren bidez 036 eta 037 ereduak beteta egin behar da.

Inskripzioak ondorioak sortu behar dituen urtearen aurreko urteko azaroan. Subjektu pasiboek, erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu ez dutenek inskripzioak eragiten hasi behar duen urtearen aurreko urteko azaroan, eta enpresaburuek eta profesionalek, enpresa edo lanbide jarduerari dagozkien ondasun entrega edo zerbitzu emateak gauzatzen hasi ez arren jarduera horietarako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu dituztenek (ondasun edo zerbitzuen xedea elementu objektiboen bidez berretsi behar da), orobat eskatu ahal izango dute erregistroan inskribatzeko aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko dagokien epean (hila edo hiruhilekoa).

Aurkezteko epealdiak

2 3

Inskripzioak ondorioak sortu behar dituen urtearen aurreko urteko abenduan. Aurrekoa gora-behera, entitate taldearen araubide berezia aplikatzea aukeratzen duen taldeko entitate nagusiak, baldin eta entitate guztiek, halaber, erabaki badute hileko itzulketa erregistroan inskribatzeko eskatzea, ondorioak izango dituen urtearen aurreko urteko abenduan entitate taldearen araubide berezi hori aplikatzeko aukerarekin batera aurkeztu ahal izango du eskaera.

Kasu horretan, entitate taldea denez, inskribatzeko eskaera entitate nagusiak egingo du.

BEZaren araubide berezi bat hautatu, hautatutakoari uko egin edo hautapena baliogabetu: oro har, ondorioak sortu behar dituen urte naturalaren aurreko urteko abenduan, geroagoko xedapen arauemailetan epe hori aldatu ezean.

PFEZen jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko modalitatea hautatu edo hautapena baliogabetu: Zuzeneko zenbatespen erraztuaren hautua edo hautuari uko egitea aurkeztuko da eragina izaten hasi behar duen urteko urtarileko hilabete osoan zehar eta martxoaren 1 baino lehen. Jarduera bati ekiten bazaio, jardueraren alta jakinaraziko den errolda aitortpenaren 037 ereduan adierazi behar da modalitatea hautatu dela.

BEZaren pean egotea hautatu 2023rako eta hurrengoetarako eta BEZaren pean egotearen berri eman, nekazaritza araubideko subjektu pasiboentzat, kenkaria egiteko eskubiderik gabeko subjektu pasibo salbuetsientzat eta enpresaburu edo **profesional** moduan ez diharduten pertsona juridikoentzat, **EBren barruko haien ondasun eskuratzeek ez badute gainditu 10.000 euroko muga:** edozein unetan eta hilabete muga horretara heltzen direnetik, hurrenez hurren.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea:

Hasiera 2023ko apirilaren 3an (*)

Amaiera 2023ko ekainaren 26an (*)

(*) Geroko arau xedapenek epea aldatzen ez badute.

Oinordetzen gaineko zerga

Autolikidazioa kausatzailearen heriotza gertatzen den egunaren edo heriotzaren aitortpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik **SEI hilabete** pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 650, 652, 653, 654 eta 655).

Sei hileko epea hamar hilabetera luzatuko da, kausatzailearen heriotza edo Kode Zibileko 966. artikuluan aipatzen diren gertaerak atzerrian gertatzen badira.

Dohaintzen gaineko zerga

Autolikidazioa zerga egitatea gertatzen denetik 30 egun baliodun pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 651, 652, 653, 654 eta 655).

Aurkezteko epealdiak

2 3

Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

600U, 600R, 600M, 600P, 600S ereduak Autolikidazioa aurkezteko epea **30 egun balioduneko**a da zergapeko eragiketa jasotzen duen agiria egiten denetik aurrera.

630 eredua 192.323,87 eurotik gorako zerga oinarria duten kanbio letren gaindikina eskudiruz ordaintzea: **30 egun baliodun**, zerga egitatea gertatzen denetik. Atzerriko letren kasuan, epea 30 egun balioduneko da, Espainiako lehenengo edukitzailearen eskura jartzen direnetik.

620-TV eredua zenbait garraibide erabiliren partikularren arteko salerosketa: **30 egun baliodun** ibilgailua eskualdatzen denetik.

610 eredua kreditu entitateek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eskudiruz ordaintzea: dagozkion eragiketak sortu eta hurrengo hila-betearen 25. egunera arte, salbu uztailleko zerga, zeinaren aitorpena irailaren 25era arte aurkeztu eta ordaindu ahal izango baita.

611 eredua aitorpenaren urteko laburpena; hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da, eta bertan jaso beharko da aurreko urtean negoziatzeko edo kobratzeko onartu diren ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta merkataritzako beste dokumentu batzuk kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eskudirutan ordaindu-tako zenbatekoei buruzko informazioa.

Balio erantsiaren gaineko zerga

308 eredua **itzulketa eskaera** ez enpresaburu ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetara egindako garraibide berrien entrega salbuesiengatik: 30 egun natural ematea gertatzen den egunetik.

Itzulketa eskaera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek, erregimen berezi erraztua aplikatzen dutenek, jarduera horiei atxikitako garraibideak eskuratzegatik jasandako kuotena: garraibidea eskuratu ondoko hileko lehen 25 egun naturaletan.

309 eredua **aldizkakotasunik gabeko aitorpen-likidazioa**, ez enpresaburu ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetan garraibide berriak eskuratzegatik aurkeztu beharrekoa: 30 egun natural ondasuna eskuratzen denetik, eta betiere behin betiko matrikulatu baino lehen. **Hainbanaketa berezia aplikatzea hautatu edo hautapena baliogabetu**: ekitaldiko 390 ereduan egin daiteke eskaera. Hartara, 2023ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean hautatu ahalko da 2022rako hainbanaketa berezia aplikatzeko edo baliogabetu ahalko da hautatzea.

Erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bidez (BIH) **kudeatzea**; hain zuzen ere, fakturazio erregistroak elektronikoki hornitzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

BIH nahitaezkoa da likidazio aldia hilabete naturalarekin batera doakien enpresaburu, profesional eta gainerako subjektu pasiboentzat: enpresa handiak, BEZaren taldeak eta Hileko Itzulketen Erregistroan (REDEME) izena emanda daudentzat.

BIHari atxikitzeko betebeharririk ez dutenek, ordea, beren borondatez ere atxiki ahal zaizkio, 036 edo 037 ereduko aukera baliatuz; eragina izaten hasi behar duen urte naturala hasi aurreko azaroan baliatu ahal izango dute aukera hori, edo jarduera hasteko aitorpena aurkezten dutenean, bestela. Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, aplikatzeari uko egiten ez zaion artean. Uko egitea 036 edo 037 ereduan egingo da, eragiten hasi behar duen urtearen aurreko azaroan.

Aurkezteko epealdiak

2 3

Oro har, BIHa aplikatzen dutenak salbuetsita daude "Hirugarren pertsonetik eragiketaren aitortzea" izeneko **347** erredua aurkeztetik.

TicketBAI betebeharra betetzeko Zerga Administrazioari bidalitako informazioak erregistro liburuak paragrafo honetan aipatzen den egoitza elektronikoen bidez eramateko betebeharra betetzeko balioko du. Hala ere, betebeharraren ondorioz informazio gehigarria eman behar bada bidalitako TicketBAI alta fitxategian jasotakoaz gain, horretarako zehaztutako kanalen bidez eman beharko da (ikusi TicketBAI informazioa webgunean).

TicketBAI sistemaren bidez igorritako fakturei buruzko informazioa bidaltzen dutenek ez dute bidali beharko 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera igorritako fakturei buruzko informaziorik, salbu eta, hala badagokio, bidezko informazio gehigarria.

035 erredua Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo urrutiko ondasun salmentak edo nazio barruko ondasun emate jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboak aplikatzekoak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasteko, aldatzeko edo eteteko aitortzea. HASIERA: jarduerak hasi baino lehenago aurkeztu edo, dagoeneko hasi badira, hasiera horren hurrengo hilaren hamarrera arte. ALDAKETA: aldaketaren hurrengo hilaren hamarrera arte aurkeztu. BAJA: araubidea erabiltzeari utzi nahi zaion hilaren edo hiruhilekoaren aurrekoa bukatu baino gutxienez hamabost egun lehenago aurkeztu.

369 erredua "Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo urrutiko ondasun salmentak edo nazio barruko ondasun emate jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboak aplikatzekoak zaizkien araubide berezietako aldizkako aitortze-likidazioa": Dagokion hiruhilekoko edo hileko likidazioaldiaren hurrengo hilaren lehenengo hogeita bost egunetan.

Sozietateen gaineko zerga

200-220 erreduak **sozietateen gaineko zergaren aitortze-likidazioa.**

Aitortze-likidazioa amaitu eta hurrengo sei hilaren ondoko 25 egunetan aurkeztu behar da. Establezimendu iraunkorren bidez jardunez gero, betebeharraren errealeko subjektu pasiboek ere aurkeztu behar dute.

Aipatutako epearen hasieran Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ez badu zehaztu zergaldi horretako aitortze-likidazioaren era, 25 egun natural izango dira aitortze-likidazioaren aurkezteko, aurkezteko era hori zehazten duen araua indarrean jartzen denetik aurrera.

Dena den, horrelakoetan zergadunak aukeran izango du aitortze-likidazioaren aurkezteko araua adierazitako epean aurkezteko, baldin eta aurreko zergaldiaren aitortze-likidazioaren ezarritako betekizun formalak betezen baditu.

Zergak Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta lege arrunteko lurraldeko araudien pean ordaintzen dituzten entitateek araudi horietan ezarritakoa bete behar dute, eta aitortze-likidazioaren prestatutako aitortze-likidazioaren nork bere administrazioko laguntza programak erabiliz.

Sozietateen gaineko zergaren aitortze-likidazio guztiak, araudi aplikagarria eta aitortze-likidazio erredua (200 edo 220) edozein direlarik ere, telematikoki aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoa erabiliz.

Aurkezteko epealdiak

2 3

20R eredua eragiketa hauen zerga araubide berezia aplikatzeko aukera komunikatzea: bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

Eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa inskribatu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da.

Inskripzioa beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egiten den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Eskrituran, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera, adieraziko da araubidea hautatu dela.

20R eredua telematikoki aurkeztu behar da nahitaez, egoitza elektronikoaren bitartez.

202-222 ereduak sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, Araban tributatu eta Nafarroako edo lege arrunteko lurraldeko araudia betetzen duten zergadunei zuzendua.

Zergadunari aplikatzekoa zaion araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu da ordainketa zatikatua.

Apiril, urri eta abenduaren lehenengo 20 egun naturaleko epea izango da aurkezteko.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

203-223 ereduak sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, Araban tributatu eta lurralde historikoetatik edozeinetako araudia betetzen duten zergadunei zuzendua.

Betebehar horretatik salbuetsita daude mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat jotzen diren entitateak eta talde fiskalak, edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 56. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritako karga tasak ordaintzen dituztenak.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateak eta salbuespen partziala duten entitateek ordainketa zatikatua egin beharko dute foru arau honetako 13. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako b) eta c) letretan ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituztenean.

Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VI. tituluaren III. kapituluaren aipatzen diren aldi baterako enpresa elkarteek eta interes ekonomikoko taldeek artikuluko honetan arautzen den ordainketa zatikatua egin beharko dute, eta horretarako egoiliar ez diren bazkideen zerga oinarria eta atxikpenak hartu beharko dituzte erreferentziazat.

Urriaren lehenengo 25 egun naturaleko epea izango da aurkezteko.

Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin da aurkeztu.

217 eredua Sozietateen gaineko zergaren aitortpena: higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen gaineko karga berezia.

Aurkezteko epea eta ordainketa 2 hilabeteko epean egingo da, akziodunen batzar orokorrak edo organo baliokideak mozkinak banatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

Aurkezteko epealdiak

2 3

231 eredua herrialdeka xehatutako informazio aitortpena.

Aurkezteko epea hau izango da: eman beharreko informazioa zein zergaldiri dagokion, hura amaitu eta hurrengo egunetik hasi eta zergaldi hori amaitu ondoren hamabi hilabete igaro arte. Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

232 eredua informazio aitortpena, eragiketa lotuei eta zerga paradisuekin lotutako eragiketei buruzkoa.

Eman beharreko informazioak aipatzen duen zergaldia amaitu eta ondorengo hamar hilabeteen ondorengo hilabeteen aurkeztu beharko da. Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin da aurkeztu.

237 eredua Sozietateen gaineko zergaren aitortpena: higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu gabeko mozkinen gaineko karga berezia.

Aurkezpena eta ordainketa 2 hilabeteko epean egingo da, akziodunen batzar orokorrak edo organo baliokideak ekitaldiko emaitza aplikatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera. Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia

05 eredua zergapean ez egoteko edo salbuespena edo zerga oinarriaren murrizketa aplikatzeko aurretiazko onarpenera eskatzen bada, eredu hau 576 eredua betetzean modu automatikoan sortuko da, eta eredu horrekin batera aurkeztu beharko da behin betiko matrikulazioa baino lehen.

576 eredua autolikidazio eredu hau garraibidea behin betiko matrikulatu aurretik aurkeztu behar da, bai eta diru sarrera egin ere, behar izanez gero.

06 eredua aitortpen eredu hori aurkeztu behar da, zergadunari, kargapean ez egoteko edo salbuetsita egoteko, aurretiazko onarpenera eskatzen ez zaionean.

Fabrikazioko zerga bereziak

2021eko urtarriletik aurrera, zerga berezien izakinen kontabilitateko erregistro liburuak kontabilitate idazpenen berehalako horniduraren bidez eramateko sistema berri bat ezarri ze (SILICIE) nahitaez betetzeko.

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez kontabilitate sistema baten bidez kontabilitatea eramatera behartuta daude zerga berezi horien araudi erregulatzailan jasotako establezimenduen titularrak. (30/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 27koa, fabrikazio zerga berezien gai diren produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duena).

Kontabilitatea eramateko sistema berri hori bete behar duten zergapekoak salbuetsita daude eragiketen aitortpenak aurkezteko betebeharretik.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Jarduera ekonomikoaren alta, baja edo egoitzaren aldaketa egin nahi duten zergadunek **errolda aitortpena (036 edo 037 eredia) aurkeztu beharko dute jarduera ekonomikoen gaineko zergako (JEZ) jardueraren alta, baja edo egoitza aldaketa izapidetu aurretik**, dela dagokien udalean (udal kuota) edo Arabako Foru Aldundian (probintzia kuota edo estatu kuota). (10/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa; ALHAO, 33. zk., 2015eko martxoaren 18koa).

Errolda aitortpena eskatuko da, orobat, Gizarte Segurantzaren LAABeko altak izapidetzek

- **ALTA aitortpenak:** jardueran hasi aurreko hamar egun baliodunetan aurkeztu behar dira.
- **ALDAKETA aitortpenak:** aldaketa ekarri duena gertatzen denetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar dira.
- **BAJA aitortpenak:** hilabete, jarduerari uzten zaionetik.
Subjektu pasiboa hilez gero, haren kausadunek baja aitortpena egin behar dute aurreko paragrafoan aipatutako epean (heriotza egunetik zenbatuta).

840 eta **841** ereduen aitortpenak aurkezteko lekua:

- a) Udal kuotaren bidez ordaintzen denean, jarduera egiteko tokia zein udal barrutitan dagoen begiratuko da, eta hari dagokion udaletxean egingo da, zergaren jarraibidean definituta dagoen bezala.
- b) Probintziako edo estatuko kuotaz ordaintzen denean, Arabako Foru Aldundian.

Eragiketen zenbatekoaren jakinarazpena: **848 eredia** jakinarazpenak ondorioak sortu behar dituen urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra arte, biak barne.

848 eredia-ren aitortpena aurkezteko lekua:

848 eredia Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzura bertaratuta aurkeztu daiteke (aldez aurreko hitzorduarekin), edo posta elektronikoz bidali iaesolicitud@araba.eus helbidera.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

1.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA DUTENAK

Arabian dagoen establezimendu iraunkor baten bidez diharduten subjektu pasiboek zerga ordaintzeko betebeharrak duten subjektu pasiboentzat ezarritako **modu, leku eta epeetan** aurkeztu behar dute aitortpena.

Atzerrira bidalitako errenten gainean zergapetze osagarririk izan bada, 210 eredia ere aurkeztu behar dute.

2.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABEAK

210 eredia establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren aitortpen arrunta.

Aurkezpen telematikoa

Autolikidazioa aurkezteko eta, hala behar izanez gero, ordaintzeko epea, kasu hauetan, errenta motaren arabera izango da:

- a) Ondasun higiezinak eskualdatuta lortzen diren errenten autolikidazioak aurkezteko, likidazioaren emaitza gorabehera, hiru hilabete izango dira, ondasun higiezina eskualdatu denetik hilabete igarotakoan zenbatzen hasita.
- b) Ondasun higiezinaren errenta egotzien kasuan, sortzapen egunaren hurrengo urte osoa; hain zuzen ere, urteko azken egunean bukatuko da epea.

Aurkezteko epealdiak

2 3

- c) Ordaindu beharreko gainerako errentak edo zero kuotadunak, hiruhileko bakoitza bukatu ondorengo lehen hogeita bost egunetan, salbu laugarren hiruhilekoa, zeinaren epea hiruhilekoa bukatu ondoko urtarrila izango baita, aurreko hiruhileko naturalean sortutako errentei gagozkiela.
- d) Itzultze eskaerako gainerako errentak: bost urte izango dira, itzulketa eragiten duten atxikipe-
nen eta konturako sarreren autolikidaziorako eta sarrerarako epea amaitzen denetik aurrera. Bost urteko epe hori autolikidazio guztiei aplikatuko zaie, itzulketa zerk eragiten duen kontuan hartu gabe (estatu barruko arautegiak edo zergapetze bakoitza saihesteko hitzarmen batek); hitzarmena garatzen duen aginduak epe laburragoa finkatzen duen kasuetan ere aplikatuko da. Autolikidazioa aurkezteko epealdia amaitutzat joko da aurkezten denean.

211 eredua aitorpen-likidazioa. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako konturako atxikipena.

Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako atxikipena (% 3) ordaintzeko erabiliko da.

Aurkezpen telematikoa

Epea: hilabete, higiezina eskualdatzen den egunetik aurrera.

213 eredua entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia

Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia aitortzeko eta ordaintzeko erabiliko da.

Epea: urte bakoitzeko abenduaren 31rako sortutako karga hurrengo urteko urtarrilean aitortu eta ordaindu behar da.

216 eredua ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipe- nen eta konturako sarreren aitorpen-likidazioa

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei konturako sarrerak edo atxikipe-
nak aplikatu behar dizkieten subjektuek erabili behar dute.

Aurkezpen telematikoa

Epea: hiruhileko aitorpena bada (oro har), apirilaren, uztailaren eta urriaren 1etik 25era eta urtarrilaren 1etik 31ra arte. Hileko aitorpena bada (enpresa handiak > 6.010.121,04 € aurreko urtean): hilaren 1etik 25era, aurreko hilarekiko; salbuespena: abendukoak urtarrilaren 1etik 31ra arte aitortu behar dira, eta uztaillekoak hurrengo abuztuaren 1etik irailaren 10era arte.

289 eredua finantza kontuen urteko informazio aitorpena elkarrekiko laguntzaren esparruan

Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar da, web zerbitzuen bidez.

Epea: urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

290 eredua zenbait pertsona estatubatuarren finantza kontuen urteko informazio aitorpena

Mezu informatikoa igorri aurkeztu behar da.

Epea: urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

291 eredua ez-egoiliarren kontuen etekinei buruzko informazio aitorpena

Epea: urtarrilaren 1etik otsailaren 10era arte, aurreko urte naturalean lortutako etekinak aitortzeko.

Aurkezteko epealdiak

2 3

296 eredua atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpen aitordpena. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarak

296 eredua honako hauek aurkeztu behar dute: ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren legezko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gainean zerga hori dela eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsona fisikoek, juridikoek eta gainerako entitateek. Horretatik salbu daude inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten pertsonak, zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenak, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 21/2014 Foru Arauak 25. artikulua 2. apartatua aipatzen duen atxikipena egin behar dutenak establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezin erositako gero, urteko laburpenaren eredu berezia baitute.

Aurkezpen telematikoa

296 eredua baliabide telematikoen bitartez aurkeztu behar da nahitaez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (www.araba.eus).

Epea: Urte bateko aitordpena hurrengo urteko urtarrian aurkeztu behar da.

Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoen inguruko informazioa

234 eredua Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen informazio aitordpena: 35/2020 Foru Dekretuaren 2. artikulua 3. apartatua definitutako informatu beharra sortu eta hurrengo 30 egun.

235 eredua Mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarri jakin batzuen eguneratzeari buruzko informazio aitordpena: Jatorrian 234 eredu edo aurkeztutako azken 235 eredu aitortutako mekanismo beraren ondoren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarriak eskuragarri jarri diren hiruhileko naturala amaitu eta hurrengo hilabete naturala.

236 eredua Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen erabilerari buruzko informazio aitordpena: Aldez aurretik aitortu behar izan diren mugaz gaindiko mekanismoak Espainiako lurraldean erabili diren urtearen hurrengo urte naturaleko azken hiruhilekoa.

Hiru eredu horien bidalketa web zerbitzu baterako eskaera bidez egingo da, protokolo seguru batez.

TICKETBAI

TicketBAI hiru foru ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu komuna da, eta horren bidez, jardura ekonomikoan aritzen diren pertsona fisiko eta juridiko guztiek argitaratutako diren baldintza teknikoak betetzen dituen fakturazio softwarea erabili beharko dute.

TicketBAI sistemak jardura ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiei eta nortasun juridikorik gabeko erakunde guztiei eragiten die, baldin eta EAeko foru ogasunek PFEZn edo sozietateen gaineko zergan duten araugintza eskumenaren mende badaude..

Interneten daude argibide guztiak: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai>

Kontsultak **945 18 15 30** telefonoan egin ditzakezu, edo inprimakia: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/formularioa-ticketbai>

Gogoratu

Zerga baten aitortpena aurkezteko epeko azken eguna jaieguna edo larunbata izanez gero, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da (44/2003 Foru Dekretua, martxoaren 7koa; ALHAO, 36. zk., 2003ko martxoaren 28koa).

Neurri horrek ez du eraginik izango finantza entitateek Arabako Foru Aldundiari diru sarrerak egiteko finkatuta dauzkaten egunei dagokienez.

Arabako Foru Ogasunaren aldizkari elektronikorako harpidetza egin dezakezu **<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ogasunaren-aldizkari-elektroniko>** web orrian, zerga berrietasunak jasotzeko eta/edo hileroko egutegia jasotzeko, hilabete bakoitzari dagozkion mugaegunekin.